

AIARALDEA *hemen*



ARTZINIEGA PANTAILA HANDIAN:
Apirilaren 26an estreinatuko
dute Kepa Sojoren *La Pequeña*
Suiza filma 14 or.

GREBA MUGAGABEAN:
Astebete daramate
greban DIAn, enplegu
espedientearen aurka 8-9 or.



**“Norberaren
mugak
gainditzeko
balio du
crossfitak”**



G! **Grafik**

ERROTULAZIOA
GORPUZDUN LETRAK
ERROTULO ARGIZTATUAK
BINILOAK ///
ZURE IDEIAK EGIA
BIHURTUKO DITUGU

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
info@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com

herriz herri

Urduña

Urduñako Abesbatza izango da aurtengo Otxomaioetako pregoilaria

Testua

Aitor Aspuru Saez

Iragan astean erabaki zuen Urduñako Jai Batzordeak Urduña Abesbatza izango dela aurtengo Otxomaio jaietako pregoilaria. Kultura taldeak 50 urte bete berri ditu, eta Arantza Agirre abesbatzako kidearen esanetan, euren apustua zen pregoilari izatea data berezi horretan.

Agirrek erantsi duenez, harrotasunez hartu dute berria: "Ospakizun bereziak dira Otxomaioak eta guk izango dugu aukera herriar oro ordezkatzeko". Euren asmoa da pregoi bizia eta arina egitea, "baina antolakuntzarekin hitzein arte ez dugu ezer prestatuko", argitu du Arantza Agirrek.

Bestetik, Santiago txurro-denda kudeatzen duen Barakaldoko familia izendatu dute txupinero. Juana Santiagok "oso pozik" jaso du albistea. Hala ere, harrituta dagoela adierazi du: "Ez dakit jendea nola oroitu den gutaz". Santiagok gogoratu du bere gurasoak hasi zirela otxomaioetan lanean orain dela 60 urte. Ordutik, lagun on ugari egin ditu hirian: "Urte bat nuenetik nator jaietara!".

Hirugarren urtez Otxomaio Jaietako Batzordeak herri galdetako antolatu du, herritarrek 2019ko festen pregoilaria eta txupin jaurtitzalea proposatzeko. On line galdetegi zabal-tzeaz gain, Alondegian bozkatzeko buzoia jarri zuten horretarako. "Guztira urduñarren 155 proposamen jaso eta baloratu dira", adierazi du udalak.

Bestalde, Monica Alonso Nie-



Urduñako abesbatza Foru plazan eginiko emanaldi batean. Urduñako Udala



Monica Alonso Nieto santurtziarraren lana izan da Otxomaioetako kartel lehiaketako irabazlea

to santurtziarraren lana izan da Otxomaioetako kartel lehiaketako irabazlea. "Ilustrazioa ikasten ari naiz, eta irakasleak txapelketaren berri eman zigun. Jaietan egonda naizenez, banekien Bihoztza zela pertsonaia nagusia, baita bere heriotzaren urtemuga izan dela ere. Urduñarrentzat garrantzitsua delako aukeratu nuen irudi hori eta piloia", adierazi dio irabazleak Aiaraaldea Hedabideari. 500€ jasoko ditu irudiagatik.

Gazteen kategoriako irabazlea, aldiz, Ilargi Gomez izan da, 100€ eskuratuko ditu lanagatik. Bestalde, umeen marrazkiak ere saritu dituzte. 4-9 urte bitarteko artean Arrate Montejoren lana goraipatu du epaimahaiak, eta 50€ jasoko ditu eskola materialean erabiltzeko. Arrate Alarconek, berriz, 40€ izango ditu bigarren postua lortzeagatik, material akademikoan baliatzeko.

"Elkarlan komunitarioko sarea" eratuko dute adineko pertsonen isolamendua ekiditeko

Testua

Txabi Alvarado Bañares

Proiektu pilotua jarri du abian Urduñako Udalak, "Landa eremuan bakardadea eta isolamendua gutxitzen. Teknologia adineko pertsonen esku hartze komunitarioaren zerbitzura" izenekoa. Adineko pertsonen iso-

lamendua saihestea izango da egitasmoaren xedea, "elkarlan komunitarioko sarea" osatuta. Diagnostiko fasea osatu dute jada, eta parte hartze komunitarioa lantzeari ekingo diote orain. Bizilagun eta elkarleen inplikazioa bilatuko dute horretarako. Udazkenara arte luzatuko dute proiektu pilotu hori.

Hainbat arazo izan dituzte hizpide URAk eta udalak

Bilera egin du udalak URA agentziarekin. Euriteek azken hilabeteetan sortutako uholdeak izan dituzte hizpide, besteak beste. Arbietoko zubiaz eta Garbigunetik gertu ibaian izan den lur-irristatzeaz ere mintzatu dira. URAk hainbat lan egingo ditu udan arazo horiek bideratzeko.

Laudio

Apirilean eraitsiko dute trenbidearen gainetik igarotzeko zubia



Apirilean eraitsiko dute Latorroko zubia. Mikel Ayllon

Testua

Aitor Aspuru Saez

Laudioko Udalak adierazi du Zubiko Etxearen alboan dagoen metalezko zubia behin betiko eraisteko kontratuaren esleipena egin duela. Hasierako aurrekontua 105.345 eurokoa bazen ere, 77.000 euroren truke egingo ditu lanak enpresa irabazleak.

Hurrengo 15 egunetan prozedura legala jarraiki, zenbait dokumentazio onartu beharko du udalak, eta apirilean kenduko dute zubia, ADIF enpresarekin koordinatuta eta gauez. Ho-

rretarako bi aste izango dituzte. Jon Ander Altube alkateordeak adierazi du obrak gauzatu baino lehen jakinaraziko dietela auzokideei zer eragozpen mota sortuko dituzten lanek. Besteak beste, errepidea moztu beharko dute.

Zubiaren eraikuntzak hautsak harrotu zituen 90eko hamarkadan, eta dagoeneko funtsezko irizpideak ez ditu betetzen: irisgarritasuna, adibidez. Horrez gain, duela 4 urte tren geltokiaren alboan dagoen tunela zabaldu zuten eta ia inork ez du erabiltzen egun metalezko azpiegitura.

Gazte Koordinadora Sozialistaren topaketa egingo dute Laudion

Apirilaren 5etik 7ra gauzatuko ditu Gazte Koordinadora Sozialistak Bizkaia eta Arabako topaketak Laudion. Erakunde jaioberraren lehen ekimen publikoa izango da. Ekimenak trebakuntza, hausnarketa politikoa eta aisialdia uztartuko ditu. Jakinarazi dutenez, bazkariak, afariak eta lo egiteko tokia eskainiko dituzte topaketetan. 15 euroko bono-laguntzak jarriko dituzte salgai. Datozen egunetan zehaztuko dituzte salmenta puntuak.

"Euskara sari ziuerra" ekimena jarri du udalak abian 81 komertziotan

"Euskara, sari ziuerra" egitasmoa abiatu du Laudioako Udalak seigarrenez, herriko merkataria, ostalari eta zerbitzu enpresen euskararen planaren barruan. Guztira 5.000 sari zuzen baino gehiagobanatuko dituzte Laudion erosketak egiten dituztenen artean. "Sariak, kanpainan parte hartzen duten establezimenduek boluntarioki ipiniak dira, baita Dolumin Barikuko zozketan banatuko diren opariak ere", adierazi dute antolatzaileek.

herriz herri

Artziniega

Artziniega Museoko ateak zabalik daude dagoeneko



Eusko Legebiltzarreko Mahaia egon zen museoan iragan martxoaren 12an. Artziniega Museoa

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Iragan martxoaren 9an ireki zuten berriz Artziniega Museoa, bi hilabete baino gehiago itxita egon ostean. Ostiralean egin zuten gida zerbitzuaren esleipena. Hainbat enpresen eskaintzak aztertuzituzten Artea etnografia elkarteko kideek. Arabako Foru Aldundiko Museo Zuzendaria, Artziniegako alkatea eta Artziniegako Udaleko talde politikoen ordezkariak bertaratu ziren hautaketa prozesua ikustera. Azkenean, Artadi enpresari esleitu zioten gida zerbitzuen kudeaketa.

Gauzak hala, museoa hurrengo egunean ireki ahal izan zuten, Artadi delako orain arte gida zerbitzuaz arduratu dena eta, ondo-

rioz, ez da ezagutza-transmisio-rik egin behar izan. Hala ere, Arteako kideek nabarmendu dute soluzioa behin behinekoa baino ez dela, instituzioen arteko akordioak museoa 2019an irekitzea bermatzen duelako soilik. "Hurrengo urtera begira ez dago ezer ere itxita", azpimarratu dute.

Indartsu heldu dio museoak berriz bere jardunari. Martxoaren 12an Eusko Legebiltzarreko Mahaia egon zen museoan, Bakartxo Tejeria Otermin Lehen-dakaria buru izanda. Lan bilera egin zuten museoko gela batean eta bisita gidatua burutu zuten jarreraian.

Talde politikoen balorazioak
Artziniegako talde politikoen positiboki baloratu dute museoa

berri irekitzea. "Hurrengo pausoan lanean jartzeko unea da orain: museoaren bideragarritasun plana", adierazi du EAJk. EH Bilduk, aldiz, garaipena "herriarena" izan dela nabarmendu du. "Batzuk museoa ixten saiatu ziren, baina ezin izan zuten", azaldu du Joseba Vivanco zinegotziak.

Artea elkarteko kideek, euren aldetik, eskerrak eman nahi izan dizkiete "Artziniegako herriari, museoa maite duten pertsona orori, Museoa Bizirik herri mugimenduari eta komunikabideei, erakutsi duten interesagatik".

Oharra: Eduki hau herritar eta bazkideen laguntzari esker plazaratu da, Artziniegako Udalak tokiko euskarazko hedabide bakarra ekonomikoki ez babestea erabaki baitzuen.

Okondo

Maila altuko kirolariak egongo dira Baserri azoka girotzen

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Datorren igandean -martxoak 24- izango da Okondoko Baserri azoka. Goizeko lehen ordutik hainbat ekintzez gozatzeko aukera egongo da herrian. Alde batetik, tokiko ekoizleen produktuak eskuratu ahaliko dira.

Horrez gain, musika, elektrotxaranga, hanburgesa dastatzea, umeentzako puzgarriak eta En-

karterriko "txakur villanoen" erakustaldia egongo dira. Okondoko Udalak antolatu du azoka, hainbat elkarteren laguntzarekin.

Herri kirol erakustaldia

Herri kirol erakustaldia egongo da azokan, 13:15ean, maila altuko kirolariek: Fausto Mugerza aizkolaria, Irati Astondoa segalaria eta Inaxio Perurena harri-jasotzailea.



Tokiko ekoizleen produktuak eskuratzeko aukera egongo da azokan. Aiaraldea.eus

Okondoko Trailean izena emateko epea ireki dute

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Otsaila amaieran ireki zuten Okondoko Trailaren lehen edizioan izena emateko epea. Maiztaren 12an izango da norgehiagoka. Parte hartzaileek 17 kilometro egin beharko dituzte

herri inguruko mendietan berrera, 800 metroko desnibel positiboarekin.

Sportmaniacs.com atarian eman daiteke izena 15 euroren truke. Egunean bertan ere egongo da inskribitzeko aukera, plaza kopurua lehenago betetzen baldin bada.

Bizindar, ETB1 kateko Txoriene saioko protagonista

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

ETB-1 kateko Txoriene saioan egon dira Artziniegako Bizindar sokatira taldeko Aintzane Lafagua eta Maria Vivanco. Sagarstrudela eta madalenak egiten lagundu zioten Zigor Iturrieta aurkezleari, taldearen eta sokatiraren nondik norakoak azaldu bitartean. Eitb.eus atarian ikusi daiteke saioa osorik. Kozinatu

bitartean Bizindarreko partaideak ugaritzeko gonbita luzatu zuten. Izan ere, Irlandako munduko txapelketan hartu nahi dute parte. Horretarako, baina, ezinbestekoa zaie kide berriak gehitzea.

Oharra: Eduki hau herritar eta bazkideen laguntzari esker plazaratu da, Artziniegako Udalak tokiko euskarazko hedabide bakarra ekonomikoki ez babestea erabaki baitzuen.

arrate
gestoria • aholkularitza • aseguruak

Iturralde kalea 2, AMURRIO 945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com

Zeure autoaren jabetza
aldaketa momentuan
egiten dugu

herriz herri

Amurrio

Dientes de Luna, Guda Dantza eta Akerbeltz taldeek girotuko dute Puntazo Eguna

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aurkeztu dute dagoeneko Puntazo Eguneko egitaraua. Apirilaren 13an egingo da Amurrioko koadrilen egitasmo hori, eta goizetik gauera arte luzatuko da jaia. "Egunaren xedea da Amurrioko jai kuadrillak biltzea eta haien papera ikustaraztea", azaldu dute antolatzaileek. Aiaraldeko jendea ere bertaratzeara espero dute, "jai giroa sortu dadin".

10:30ean hasiko da programa, haurren gunea irekiko baitute ordu horretan. Puzgarriak eta tailerrak egongo dira bertan, besteak beste.

Tortilla Txapelketa Solidarioa egingo dute gero, goizeko hamaiketan Juan Urrutia plazan. "Izen ematea Txokogorri eta Atxubi tabernetan egin daiteke apirilaren 10a baino lehen, 2 euroren truke", zehaztu dute antolatzaileek. Nabarmendu dutenez, irabazi guztiak AEFAT elkarteari emango dizkiote, ataxia telangiektasia gaitzaren aurka borrokatzeko.

13:00etan jaurtikodute jaiari hasiera emateko suziria, jarraian ha-



Kontzertu eskaintza oparao egongo da Puntazo Egunean. Aiaraldea.eus

siko da trikipotea. 14:30ean herri bazkaria egingo dute Matias Landaburun. "Bazkaldu eta gero zenbait ekintza antolatu dira, hala nola, sartenazo txapelketa edota bingoa". 19:30ean, berriz, kalejira egongo da herriko kaleetan barrena, Amurrioko Battuere batukadak girotua.

Kontzertu eskaintza oparao

Gauean, aldiz, musika eskaintzak hartuko du protagonismo osoa. Rapak pisu handia izango

baitu, estilo horretako hainbat abeslari arituko baitira oholztzagainean 21:30etatik aurrera: Neod's, Ocb, Ndp eta Bajo Zero. Dientes de Luna eta Guda Dantza taldeek joko dute jarraian, eta Akerbeltz erromeria arduratuko da parranda goizeko ordu txikietara arte luzatzeaz.

Antolatzaileek nabarmendu dute aurtengoa Puntazo Egunaren X. edizioa izango dela. Horregatik, argazki proiektzioa egingo dute kontzertuen arteko tartetan, aurreko edizioetako irudiekin.

Errefuxiatuen aldeko arropa bilketa egingo dute Amurrio Aisia Eskaut taldeko kideek

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Errefuxiatuen aldeko arropa bilketa jarriko du abian Amurrio Aisia Eskaut taldeak. "Laguntza elkarrekin jarri ginen harremanetan ikasturte hasieran eta arroparen beharra zutela esan zigutenean, lanari ekin genion", azaldu dute taldeko kideek.

Hainbat bilketa gune atondu dituzte: Carrefour, DIA eta Berriak supermerkatuetan; Kultur etxean eta Lucas Rey ikastetxean. Astelehenan martxoak 18- hasi zuten bilketa, eta 31ra arte luzatuko da. Herriar orori luzatu diote ekimenean parte hartzeko gonbita. "Edozein motatako arropa hartuko dugu,



Iaz Greziako errefuxiatuen kanpalekuetan egon ziren eskautak. **Aisia Eskaut Taldea**

zikin, apurtuta edota urratuta ez badago". Honakoa ez da izango eskaut taldekoek errefuxiatuen alde

egingo duten lehen ekimena, esaterako, iaz Grezian egon ziren, errefuxiatuen kanpalekuetan.

Orozko

Osasun zentroan obrak egiteko proposamena onartu dute

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Orozko osasun zentroan obrak egiteko proposamena aurkeztu zuten martxoko udalbatzan. "Notariotzan obra amaierako ziurtagiria onartzeko da", azaldu zuen Josu San Pedro alkateak. Hala, datozen 10 urteetan loka- la udalarena izatera igaroko da, alderdi guztiak alde agertu baitziren.

Udal baratzen araudia ere izan zuten hizpide. Rakek Olabarria zinegotziaren hitzetan, zenbait al- daketa egingo dituzte, "ortuen erabiltzaileek eskatuta, urtean behin traktorea pasatu ahalko da". Izan ere, lur sailak harriak ditu tarteka. Horrez gain, auke- ra dagoenean belar makina pa- satzeko konpromisoa hartu zuen tokiko erakundeak.

Martxoaren 8ko adierazpen instituzionalari eman zioten bide segidan. Erregu eta galde- ren atalean, EAJk Zalao auzoko txakurren afera eraman zuen udalbatzara, herriararren kexak medio: "Ikertu eta zigor siste- ma ezartzeko neurriak abian jarri dira? Zein da instruktore edo arduraduna? Zigor sistema abian badago, zergatik ez dira egin?".

Alkateak Zalao auzoko arazo- en berririk ez duela aipatu zuen, "Uribiarten bai. Uztaileko salake- tak erantzun ziren, aguazila joan

zen, baina espediente zigortzai- lea ezartzeko ez genuen moti- borik aurkitu". Zentzu horretan, huts egitearen arabera ardura erakunde ezberdinena dela ar- gitu zuen alkateak, "larriak dire- nean Aldundiarena da eskume- na, bestela Udalarena".

Tubos Reunidosen mozioa

Tubos Reunidosen langileen aldeko mozioa izan zen gai kor- pilatsuena, EH Bilduk aurkeztua, LABen izenean.

Beharginen aldi baterako en- plegu erregulazioa izan zuten hizpide. Finean, 16 hilabeteko iraupena izango duen erregula- zioa arbuizatzeko eskatu zieten al- derdiei, "Amurrioko lantegiaren geroaren alde egiteko bideraga- rritasun plana aurkeztea".

EAJk mozioari emendaki- na erantsi zion, 2014tik hona- ko bilakaera aipatuta: "Orozko- ko udalbatzak Tubos Reunidosi eskatu behar dio ahalik eta neu- rri ez traumatikoenak hartzeko, akordioa alde sozialarekin bila- tu behar da".

Adie langileei elkartasuna he- larazi zien, "orozkoar kaltetuenei, batez ere, ezer egin gabe geratzea da neurriarik txarrena". Orozko- ko Udalak ez dituela enpresaren zenbait aspektu ezagutzen argu- diatuta, abstenitu egin zen Adie. EH Bilduk alde bozkatu zuen, eta EAJ abstenitu zen.

Orozkon grabatu dute ETB1eko Sukaldaria saioaren lehen atala

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Orozkon grabatu dute ETB1 telebista-kateko *Sukaldaria* saio berriaren lehen atala. Jo- seba Arguiñanok -Karlos Ar- guiñanoren semeak- gidatuko du programa eta Euskal Herriko herrietako gastronomia izango

du ardatz. Julia Barberena ager- tu zen iragan ostegunean emiti- tutako lehen atal horretan, bes- teak beste. Euskal pastela egiten irakatsi zion orozkoarrak Ar- guiñanori.

Jose Mari Olabarria artzaina- rekin eta Felix Mugurutza iker- larekin ere egon zen aurkez- lea.

Aiaraldea

Onartu dituzte Aiarako Kuadrillako aurrekontuak



Iragan ostiralean onartu zituzten aurrekontuak. Aiaraldea.eus

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Bost alderdiren abstentzioarekin (Aiara Batuz, Okondo Aurrea, Orain Amurrio, Omnia eta EH Bildu) eta biren aldeko botoekin (EAJ eta PSE) onartu ziren iragan ostiralean Aiarako Kuadrillako aurrekontuak. EH Bildu eta EAJ-ren artean jazo zen eztabaida nagusia. Orain Amurriok, aldiz, zaborren kudeaketagatik erabaki zuen abstenitzea.

Maider Basterra lehendakariak azaldu zuenez, langileen baldintzetan, zaborren kudeaketan edota elkartearen diru-laguntzetan egingo dituzte hobeak, besteak beste. Euskara arloan Euskalardiaren eragina ikertuko dute. Horrez gain, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren ekarpena erantsi dute aurrekontuetan.

Berdintasun alorrean ez dute planik aurreikusi: "Ondorioz, partida guztia ekintzetara bideratuko da". Berdintasun topaketaz gain, autodefentsa feministari buruzko jardunaldiak antolatzeak konpromisoa har-

tu dute, "gazteengana heltzeko" helburuarekin. Bestalde, Bel-dur Barik ekimena eta jaietako kanpainak mantenduko dituzte. Sustapen ekonomikorako, berriaz, AECOK (Aiarako merkatariekarteak) erakusleho lehiaketa handitzeko partida igotzea eskatu du. Promozio turistikoak izango da berrikuntzetako bat, Aiatur desagertu arren, zenbait egitasmogauzatu baitira, eskualdeko mahai eraketa kasu.

Protokoloa

Indarkeria matxistaren aurkako plana ere izan zuten ahotan, baita indarkeria sexistaren arreta protokoloa ere. "Aiarako kuadrillako plana aitzindaria da EAEko indarkeria matxistaren alorrean, justizia egia eta erreparazioa ditu ardatz proiektuak", erantsi zuen Maider Basterrak. Eraso sexistaren protokoloa ere bozkatu zuten. "Aholkularitzan eta arretan oinarritua dago", zehaztu zuen lehendakariak gaiaren aurkezpenean. Lan teknikoaren bidez Osakidetza eta Ertzaintzak hartuko dute parte, besteak beste.

Garbaldiren "kudeaketa txarra eta jazarpen sindikala" salatu ditu LABek

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Tubacexen garbiketaz ardurtzen den Garbaldi enpresaren jokaera salatzeak prentsa oharra plazaratu du Aiaraldeko LABek. Sindikatuaren ustez, egoera "jasangaitza" bihurtu da azken hila-beteetan. Salatu dutenez, enpresak ez zien toxikotasun plusa ordaintzen langileetako batzuei. "Enpresa akatsaz jabetu zen eta barkamena eskatu zuen, baina or-

dainketa egin nahi izan zuenean ez zuen kopurua behar bezala kalkulatu. Gauzak hala, dirua zor die oraindik langileei".

Jazarpen sindikala

Nominak paperean entregatzea ere eskatu dio LABek Garbaldiari, "Lan-ikuskaritzak ere derrigortu zuen horretara". Baina, salatu dutenez, enpresak ez du oraindik agindutakoa bete.

Honako hau ere salatu du LABek: bere delegatu baten aurka

eginiko jazarpen sindikala. "Garbaldik gure ordezkari sindikalaren errelebo kontratuaren eskaera galdu du", azaldu dute. Langileak eskatutako baldintzak betetzen dituela nabarmendu du sindikatuak: "hitzez esan zioten dena 'ondo' zegoela, baina oraindik ez du erantzunik jaso".

Horrekin batera, Tubacexeko azpikontraten arduraduna, Jose Manuel Andres Alonso, egoaren erantzulea ere badela gaineratu dute.



herriz herri

Aiaraldea

“Aiarako kontzejuen %75ak ditu emakumeak lehendakari edo bokal gisa”



MENTXU RAMILO ARAUJO (Gasteiz, 1978) ADMINISTRAZIO BATZARRETAKO ANDREEN PARTE HARTZE POLITIKOA IKERTZEN ARITU DA. MARTXOAREN 27AN AURKEZTUKO DUTE AZTERKETA ARESPALDITZAN.



Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Aiarako Administrazio Batzarretako emakumeen partaidetza ikertu duzu. Nolatan?

2018ko Emakunderen beketara aurkeztu genuen egitasmoa. Guztira, 50 proposamen egon ziren eta gure ikerlana hautatu zuten, beste 2 proiektuekin batera. Ikerketa Arabako Kontzejuetan emakumeen parte hartze politikoari buruzkoa izan da.

Zenbat Kontzeju daude Araban?

Arabak 7 kuadrilla ditu, eta 334 batzar administratibo. 1997tik 2017ra bitartean azterketa kuantitatiboa egin dugu, emakume eledunen bilakaera ezagutzeko. Horrez gain, 68 elkarrizketa egin dizkiegu 54 kontzejuetako emakumeei eta 34 aldiz elkartu gara Diputazioko, Garapen Agentzietako eta Kontzejuetako elkarteekin zerikusia duten pertsonekin. Guztira, beraz, 102 elkarrizketa egin ditugu. Horrez gain, 8 talde hirukoitz abiatu ditugu, nolabaiteko eztabaida saioak egiteko 3 lagunetako taldetan. Aiarako kasuan, 5 kontzejuetako 6 andre elkarrizketatu ditugu.

Zein da Aiarako egoera, gaur egun?

Aiara da Araba osoan kontzejuetan emakume gehien dituen kuadrilla. Kontzejuen %75ean daude emakumeak lehendakari edo bokal bezala Aiaran, batazbestekoa %54.5 den bitartean. Guztira, eledunen %35.6 emakumeak dira, eta bataz bestekoa 24.6koa da Araban. Aiarako emakumeek ez dakit zein ur edaten duzuen, baina bereziak zarete! Nik uste eragina izan duela Bilbotik gertu egoteak, alfabetizazioa sustatzeko baliabidedun pertsonak izateak, industria-

lizazioak, emakume baserritarren lanak... Baita ezkerreko apaizek sustatutako elkarteek ere, Arabako beste apaizen eraginarekin zerikusiz ez duena!

Zeren ondorio da emakumeen presentzia urria?

Aniztasuna ez da txertatu kontzejuetan oraindik, gauzak egiteko bestelako moduak ere badaude. Agendan gai berriak txertatu behar dira, izaera sozialagoa dutenak. Emakume eta aniztasunik gabe (gazteak, nagusiak, jende berria, betikoa, nekazariak, bestelako lanbideak...) ez dago demokraziarik!

Aiarako bilakaera jarraitu duzu. Nolakoa izan da?

Kuadrilla bakoitzari denbora gehiago eskaintzea gustatuko litzaidake, baina ezinezkoa izan da. 10 hilabeteetan nahiko ikerketa potentzia egin dugu, nahiz eta ezin sakondu nahi beste. Dena den, gure ikerketak beste azterketa ugari irekitzen die atea, kontzejuetan, kasu, emakumeen presentzia areagotzeko ekintzak sustatzeari. Kontzejuak autogobernatzeko sekulako potentziala dute, beti ere pertsonak batzarretara joaten badira, eta Administrazio Batzarrek bokazio eta zentzu publikoa mantentzen badute.

Zeintzuk dira, zure iritziz, egungo arazo nagusiak?

Batetik, indibidualismoa; jendeak ez du sentitzen herrietako arazoa euren denik. Bestetik, erosotasuna, pertsonen bezerotasuna. Protagonistak izatetik zerbitzuen bezero izatera igaro gara: “egin dezatela eurek, horretarako ordaintzen ditut zergak”. Kontzejuetan badira bizilagunek egin ditzaketen zeregin ugari, auzolanak kasu. Bestalde, oraindik bada jendea uste duena kontzejuetara familiaburua

joan behar dela (gizonezkoa, eta, berau hiltzean bere alarguna edo seme nagusia...).

Administrazio Batzarren funtzionamenduak zerikusirik al du horretan guztian?

Bai. Burokrazia eta tramitazio telematikoak arazo dira oraindik, kontzejuen dedikazioak ordu asko eskatzen ditu... Kontzejuak parte diren udalen laguntza ezinbestekoa da, edota Arabako Batzar Administrazioen Elkarte edo Diputazioko laguntza berebizikoak dira. Zentzu horretan, paperekin ez mareatzeko sinplifikazio administratiboa eta aitortza eskatu dute ordezkariak. Adibidea jartzearen, gutunak existitzen ez diren kaleetara bidaltzen dituzte instituzioek kontzejuak aipatu ordeiz; ez dituzte jardun murrizketak aitortzen lehendakariak hautes karguak ez direla iritzita (zinegotzi direnentzat bai, baita bestelako goi karguetan daudenentzat ere).

Zer egin liteke egoera hobetzeko orduan?

Lehenik eta behin Batzar Administrazioen ezagutza zabaldu. Bigarrenik, emakume gehiago inplikatu beharko lirateke. Bestalde, 4 urte edo gehiago herriaren alde lanean dabilzanen lana aitortzea garrantzitsua da, irabazi ekonomikorik gabe dihardute lanean eta baliabide propioekin gainera (internet, papera, autoa...)

Emakumeen parte hartze politikoari dagokionez, instituzioetan parekidetasuna urruti al dago oraindik?

Emakumeek asko parte hartzen dute, izugarria da Aiaran, oso aktiboak eta kanerak zarete! Horrek isla handia du batzarretan, baita udaletan ere. Alabaina, botere estrukturtako funtzionamendua oso maskulinizatua dago.

Aiaraldea



IZAR MENDIGUREN COSGAYA

KAZETARIA

Sistema eustetik haustera



Milaka emakumek egin zuten bat grebarekin. Eider Garcia eta Aitor Burgoa

Emakumeok* planto egin genien iragan martxoaren 8an gure eguneroko lanei, zaintza ardurei eta kontsumoari. Heteropatriarkatu kapitalista eustetik haustera igarotzeko lehen pauso kolektiboa izan zen greba feministak, bizitzak erdigunean jartzekoa. Mugikorrean, memorian eta historian geratu dira grabatuta atzoko irudiak eta pilatutako indarra: 364 egunetarako babes eta aldarri mugagabea.

Barrenean iltzatu zaizkit 24 orduko grebako zenbait momentu: Artziniegako Nagore garraiolariak Urduñako mobilizazioari kamioiarekin irekitako bidea, Urduñarrek historia irakurtzeko emakumeen lorpenez plazan osatutako erakusketa, Aiarako elkarteetako andreek eskuz esku josi eta osatutako sareak, arratsalde munduko emakumeekin antolatutako dantza saioak, objektutzat gaituen kontsumo eredia salatuzko Eroskin egindako ekimenak, familia zein etxearen zaintzari uko eginda kalean elkartutako amama, ama eta biloben besarkada eta oihuak... Orozkoko zebra bideek argi diote: "emakume batek pausoa ematen duenero guztiok egiten dugu aurrera".

Halaber, ez ditut ahaztuko kalean bizitako une hauek: 8 urteko neskatilek lapikoak astintzen sistema heteropatriarkatu kapitalistari emandako zartadak, eguerdian euren murla sortu eta manifestazioko lehen lerroan joateko euren eskaera eta erabakia, bazkarira gorpildun aulkian jaitsi eta "eskerrik asko amama" esan zion ume grebalararen aitortza, neska gazteek Euskal Herrian eraildako emakumeei su gorritan eskainitako omenaldia... Ez dira alperrik izan lehengo -eta oraingo- sorginen erratzak.

Mugimendu Feministaren eskutik, gogoetarako eta historiarako lekuko asko utzi ditu 2019ko martxoaren 8ak, inoiz baino saretu eta indartsuago gainera. Greba feminista bukatu da. Hau hasi baino ez da egin. Lekuko baino, ardurak banatu eta bidelagun izateko garaia da.

Aiara

“Jolas txokoak” programaren edizioan izena emateko epea, martxoaren 29ra arte irekita

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiarako Udalak "Jolas Txokoak" programaren edizio berria prestatu du Aste Santurako. Horrela, 2007. eta 2015. urte bitartean jaiotako umeek izena emateko aukera izango dute martxoaren 29ra arte.

Berez, apirilaren 23tik 26ra

arte izango dira tailerrak 10:00etatik 13:30ak bitarteko ordutegian eta tailerrak zein jolasak landuko dituzte egun horietan guztietan Arespalditzan eta Luiaondon.

Izen ematea

Izena emateko orria bete beharra dago eta Aiarako Udaltxean laga edo [info@aiara-](mailto:info@aiara-koudala.eus)

koudala.eus bidali. Informazio gehiago eskatu daiteke 945 39 90 13 telefono zenbakian.

Haur baten inskripzioak 16,8 euro balioko du, familia berean bik ematen badute izena 30,8 euro izango da prezioa guztira, 3 anai arreba badira 42 euro ordainduko dituzte gurasoek eta familia ugaria bada, 14 euro kide bakoitzeko.

KORRIKA Aiaraldean JARRAIPEN BEREZIA



• Zuzenekoak • Bideoak
• Argazkiak • Elkarrizketak ...



@aiaraldea



688 848 152



elkarritzeta

“Enplegu espedientearen eragina txikia izatea da gure helburua, horretarako gaude greba mugagabea”



ENKARNI ALONSO LARRAZABAL ARETARRAK ARRANKUDIAGAKO DIA SUPERMERKATUAN EGITEN DU LAN ETA LAB SINDIKATUKO ORDEZKARIA DA. GREBA MUGAGABEAN DAUDE BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO SUPERMERKATUKO LANGILEAK, ENPRESAREN ZUZENDARITZAK MAHAI GAINEAN JARRI DUEN ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEA DELA ETA.



Testua eta argazkiak
Txabi Alvarado Bañares

Greba mugagabea egiten ari zarete Bizkaia eta Gipuzkoako DIA supermerkatuetako langileak, Enplegua Erregulatzeko Espedientea dela eta. Zein da gaur egungo egoera?

Otsailaren 4ra arte ez genuen gaiari buruzko informaziorik. Orduan jakinarazi zuen enpresak Enplegua Erregulatzeko Espedienteak 2.064 langileri eragingo zuela.

Bizkaian eta Gipuzkoan 71 behargini eragingo lieke, %12,65ari, alegia. Martxoaren 15eko bileraren ostean, CCOO-k adierazi zuen 29 denda enplegu espedientetik ateratzea lortu zuela, eta horietako 4 EAEkoak direla.

Azken bilera iragan ostiralean izan zen. Bertan zehaztu omen zen azkenean 1.536 pertsonari eragingo lieke espedienteak, baina oraindik ez dute zehaztu non egingo lituzketen kaleratze eta itxierak. Ez dakigu oraindik zer irizpide jarraituko duten, ea jubilatzeaz dagoen jendea edo sartu berri dena kaleratuko duten.

Ez da bidezkoa enplegu espedienteak lanean urte luzez aritutako pertsona bat kaltetzea bere denda gaizki doalako.

Dena dela, hori da enpresak planteatu duena. Gero negoziazio mahaian argudiatu beharko dute zergatik planteatzen dituzten kaleratze horiek. Itxaroten gaude, beraz.

Negoiazio mahaian parte hartu ahal izatea eskatzen duzue.

Bai. ELA eta LABi ez ziguten Madrilgo negoziazio mahaian parte hartzen utzi, Estatu Espainiarrean ordezkartza nahikoa ez genuela esaten zutelako. Gali-ziako CIG eta Aragoiko OSTA sindikatuak gurekin jarri ziren harremanetan orduan, lau sindikatuak batera negoziazio mahaia eratzea lortu genezakeen ikusteko.

Baina Fetico eta CCOO sindikatuak atzera bota zuten gure proposamena, hainbat sindikatuen indarrak ordezkartza gehiago lortzeko batzea legez kanpokoa dela argudiatuta. Salaketa jarri dugu erabaki horren aurrean, baina ebazpenaren zain gaude.

Otsailaren 27an (lehen greba egunean) idazki bat eraman genion enpresari, egoeraren gaineko informazioa eskatzeko. Zuzendaritzak ez zigun atea ireki ere egin.

Iragan astean egin zenituzten lehen hiru lanuzteak, eta greba mugagabeari ekin diozue orain. Zer nolako animoak daude langileen artean?

Greba hasi genuenean jendea oso animatua zegoen. Enpresak lasai egoteko esan digu, eta benda zauria izan baino lehen jartzen ari ginela, baina Madrilen zer gertatuko zaigun erabaki arte...

Negoiazio mahaia baldintzatzea zen gure helburua, Bizkaian eta Gipuzkoan enplegu espedientearen eragina txikia izatea. Horretan ari gara. Nola egongo gara lasai ez baldin badakigu zer gertatuko den?

Hiru eguneko greba egin genuen lehenbizi, eta orain mugagabeari heldu diogu, enpresaren partetik ez dugulako erantzun zehatzik jaso. CCOO-k adierazi zuen ez zuela aurreikusten grebarik egitea enpresaren erantzunaren zain zeudelako, baina ez dute aukera hori

elkarriketa



“Azken informazioen arabera, 1.536 pertsonari eragingo lieke espedienteak”

baztertu. Noizbait lanuzteak deitzen badituzte baliteke elkarlanean aritzea eurekin.

Honakoa ez da grebara zoazten lehen aldia.

Ez, 2017. urtean ekin genion lanuzteak egiteari, langile gehiagoren kontratazioa aldarrikatzeko. Supermerkatuetan oso langile gutxi geundela ikusten genuen. Horregatik, oporretan eta bajan dauden beharginen lanpostuetan ordezkioak sartzea eskatzen genuen, besteak beste.

Greba horiek ez ziren oraingoak bezalakoak izan. Toki batzuetan langile gehiago batu ziren eta beste batzuetan gutxiago. Baina lortu genuen zuzendaritza gurekin biltzea eta sindikatuarekin batera lan egiteko konpromisoa hartzea. Abendutik daramagu zonaldeko arduradunarekin bilerak egiten, dendetan ditugun arazoez hitz egiteko, eta egia da mahaigaineratzen genituen arazoezko soluzioak planteatu zizkigutela, enplegu espedientearen afera atera den arte.

“Gaur Madrilera joango gara ELA eta LABeko kideak kontzentrazioa egitera, enpresako akzionistak bilduko baitira bertan”

Dendetan langile gehiago behar zenituztela aldarrikatzen zenuten, eta enpresaren erantzuna enplegua murrizteko plana aurkeztea izan da.

Hori da. Egia da hedabideetan aspalditik entzuten zela DIAren egoera txarrera zihoala. Zuzendaritzak esaten zigun lasai egoteko, eta hori esaten genien guk ere langileei.

Hori horrela izan da otsailaren 8ra arte. Egun horretan jaso genuen enplegua erregulatzeko espedienteari buruzko mezu elektronikoa. Ezustekoa izan da.

Astebete daramazue greba mugagabea. Zein da datozen egunetarako duzuen aurreikuspena?

Zuzendaritzak ez digu zuzenean inolako informazioarik helarazi, Feticco, CCOO eta UGT sindikatuak ari dira negoziatzen. Iragan ostiralean egin zuten azken bilera. Hainbat aurrerapauso eman ziren, baina ez dira nahikoak. Gaur -martxoak 20- Madrilera joango gara ELA eta LABeko ordezkariak, enpresaren akziodunen bilera egingo baitute bertan. Elkarretaratzea egingo dugu. Bien bitartean, greba mugagabeari eutsiko diogu Bizkaian eta Gipuzkoan.

Hainbat urtetako borrokaren kronika

Hiru DIA supermerkatu daude eskualdean, baina Arrankudiagako saltokiko kideak daude soilik grebara deituta.



Greban daude Arrankudiagako DIA. DIAko grebalariak

Hiru DIA supermerkatu daude Aiaraldean: Amurriokoak 19-20 urte daramatza martxan, Laudiokoa, aldiz, duela 18 urte ireki zuten. Arrankudiagakoa da berriena, 2005. urtean sortu baitzen. Baina, era berean, eskualdeko handiena da. 17 langile daude lanean, Laudioko saltokian 3 baino ez dauden bitartean, sindikatuak emandako informazioaren arabera.

Otsailaren 8an jakin zuten sindikatuak zuzendaritzak Enplegua Erregulatzeko Espedientearen prozedura abiatu zuela. Estatu Espainiarrean ordezkariak duten sindikatuak negozioa mahaia osatu zuten orduan, eta orduz geroztik enpresarekin bilerak egiten ari dira.

Iragan astelehenean -martxoak 11- hasi zuten greba mugagabea Bizkaia eta Gipuzkoako DIA supermerkatuetan, enpresaren zuzendaritzak aurkeztutako Enplegua Erregulatzeko Espedientearen aurka. Aurretik, baina, hiru greba-egun egin zituzten beharginek: otsailaren 27an eta 28an eta martxoaren 5ean.

Greba gehiago

Hala ere, honakoa ez da izan DIAko langileen lehen protesta olatua. 2017 eta 2018. urteetan hainbat greba egin zituzten Bizkaia eta Gipuzkoako beharginek, lan baldintzak hobetzea eskatzeko. Bi aldarrikapen nagusi zituzten: “Etengabeko ordutegi aldaketekin” amaitzea eta langile batek baja edo oporrak hartzen zituenean, ordezkioa bilatzea, bestela lan-zama asko handitzen zelako.



Greba feministako kideak, Amurrioko DIA. Aiaraldea.eus

erreportajea


Eskualde pobre batean bizi gara?

Hainbat adierazleren arabera, Aiaraldea da EAEn pobrezia maila altuenetako bat duen zonaldea. Eskualdeko udalerri gehienetako errenta maila autonomi erkidegoko batez bestekoaren azpitik dago, eta ezberdintasunak are nabariagoak dira gizonen eta emakumeen artean.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

AIARALDEARREN ERRENTA



Nola neurtzen da eskualde bateko pobrezia maila? Hainbat adierazle daude, pobrezia egoeran dauden biztanleen ehunekoa da horietako bat. Aiarako Kuadrillako udalerrietako biztanleen %9,8a dago mantentze-pobrezia egoeran. “Epe laburrean oinarriko beharrak (batik bat elikadura, etxebizitza, arropa eta oinetakoei zerikusia dutenak) asetzeko gastuei aurre egiteko behar adinako baliabide ekonomikorik ez izateari dagokio indize hori”, EUSTATen arabera. 2016. urtekoak dira Euskal Estatistika Erakundeak jasotako azken datuak eta, beraz, horiek dira erreportaje honetan plazaratuko ditugunak.

Pobrezia adierazleak

Datu horien arabera, EAEn mantentze-pobrezia altuena duen zonaldea da gurea. Gasteiz da bigarrena, %9,7arekin. Beste pobrezia adierazleetan (pilaketa pobrezia, pobrezia erreala eta ongizate eza) Aiaraldea ez da ehuneko handiena duen eskualdea, baina EAEko batez bestekotik gora dago uneoro.

“Pobrezia maila altuak izatea atzetik datorren zerbait da, ezin da faktore kointuturalengatik azaldu”. Hala dio du Unai Martin Roncero soziologo laudioarrak. EHUko irakaslea da, eta berarengana jo dugu erreportaje honetako zenbakien atzean dagoen errealitatea azaleratzeko. Bere ustez, birmoldaketa industrialak eragin handia izan zuen eskualdean, industriarekiko menpekotasun handia zegoelako. “Egia da gaur egungo krisian eskualdeko industria-enplegua beste toki batzuetakoa baino hobeto mantendu dela, baina Aiaraldean langabezia eta pobrezia maila historikoak daude, eta

erreportajea

azken urteetan ez da horiei aurrerik egitea lortu”.

Errenta maila

Errenta maila da zonalde baten egoera zein den jakiteko beste adierazle esanguratsua. Ezberdintasun ugari sumatu daitezke eskualdeko udalerrien artean. Arakaldo da errenta maila altuena duen herria: 23.201 euro urteko batez beste pertsona bakoitzeko. Baxuena, aldiz, Okondok du, 17.374 euroko batez bestekoarekin.

Martinen arabera, “nabarmenak” dira Aiaraldeko udalerrien arteko ezberdintasunak, “baina zuhurtzia handiarekin interpretatu behar dira”. Adinaren faktorea oso garrantzitsua dela azpimarratu du soziologoak, “harreman estua dagoelako adinaren eta errentaren artean, pertsona gazteenak eta nagusienak direlako errenta baxuenak dituztenak. Adibidez, biztanleria zaharkitua duten udalerriek edo biztanle gazteak erakartzea lortu dutenak baliteke errenta baxuagoa izatea. Kontrara, biztanleria heldua nagusi den udalerrietan errenta altuagoa izan daiteke”.

Hala ere, eskualdeko datuak esanguratsuak direlakoan dago Martin, herri gehienetan errenta-maila EAEko batez bestekoaren (20.443 euro) azpitik dagoelako. Arrankudiaga, Aiara eta Arakaldo dira batez besteko hori gainditzen duten bakarrak, eta biztanle gutxi dituzten herriak dira gainera. EHUko irakaslearen aburuz, Urduña, Okondo eta Laudioko kasuak dira deigarrienak: “udalerririk horietan EAEko batez bestekoa baino %10 txikiagoa da errenta-maila”. Hala ere, datu horiek tentuz aztertu behar direla uste du soziologo laudioarrak. “Badaude historikoak izan daitezkeen ezberdintasunak. Batzuk udalerrian garatzen diren jardueren lotuak egon daitezke, beste batzuk bertan bizi diren pertso-

DATUTAN
%9,8
Aiaraldeko biztanleriaren ia ehuneko hamarrak du mantentze pobrezia

%60
handiagoa da gizonen errenta maila, emakumeenarekin alderatuta

33.517
eurokoa da Laudioko pertsonako Barne Produktu Gordina, errenta baino 14.889 euro gehiago

nen ezaugarriak eta, batzuetan, baita egoitza-dinamikei ere. Badaude errenta-maila altuak dituzten pertsonak erakartzen duten udalerririk, maila altuko urbanizazioak eraikitzen dituztelako, tokiko errealitatearekin zerikusi gutxi dutenak”.

Generoen arteko arrakala

Datuak behatuta badago beste gauza bat berehala igartzen dena: emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun nabarmena. Eskualdeko herri guztietan da askoz txikiagoa emakumeek batez beste jasotzen duten diru kopurua. Amurrión, adibidez, 25.217 eurokoa da gizonen urteko batez besteko errenta, emakumezkoena 12.952 eurokoa (hau da, erdia baino gutxiago) den bitartean. Joera hori Aiaraldeko beste udalerrietan ere sumatu daiteke.

“Arrakala oso agerikoa da, gizonen errenta pertsonala emakumeena baino %60-80 handiagoa baita”, azaldu du Martinek. Ezberdintasun hori “gizarte patriarkalak” eragiten duelakoan dago soziologo laudioarra. Bere ustez, hainbat gauza eragiten ditu gizarte eredu horrek: emakumeek soldatapeko lanean presentzia txikiagoa izatea eta egiten dituzten lanak txarrago ordainduak egotea. “Emakumeek, adibidez, presentzia txikiagoa dute industria sektorean eta handiagoa oso gaizki ordaindua dagoen zerbitzuen sektorean”.

Horrez gain, “zaintza lanak emakumeen gain geratzea” duen garrantzia nabarmendu du Martinek. “Lanera okerrago sartzea dakar horrek, eta lanpostuan aurrera egitea zailtzen du. Seme-alabak izateak, adibidez, eragin handia du emakumeen lan-bizitzan, gizonen kasuan ez bezala. Modu horretan, amatasunak eragiten du emakumeek errenta txikiagoa izatea euren bizitza laboralean eta, era berean, jubilatzerakoan pentsio baxuagoak izate-

Eskualdeko herri gehienetan dago errenta maila EAEko batz bestekoaren azpitik

tea”. Horrez gain, kontuan hartu behar da emakume asko ez dutela etxetik kanpo lan egin eta, ondorioz, oso pentsio baxuak jasotzen dituztela.

Geroz eta errenta handiagoa

Udalerririk udalerririk, badago toki guztietan errepikatzen den joera bat: urtez urte handitu egiten da errenta-maila. Laudioko errenta-maila, adibidez, 11.404 eurokoa zen 2001. urtean eta 18.628 eurokoa, aldiz, 2016an.

“Errenta geroz eta handiagoa izatea da normalena, diruaren balioa geroz eta txikiagoa delako”, argitu du Martinek, “errenta handituko ez balitz eroste-ahal-

mena txikituko litzateke. Horregatik, pertsonen errenta benetan igo den jakiteko bizitza zenbat garestitu den ere hartu beharko litzateke kontuan. Aiaraldearen kasuan, eman den igoera ez zait oso nabarmena iruditzen, krisiaren eta krisiaren osteko azken garaietan batez ere”.

Non dago dirua?

Barne Produktu Gordina (BPG) da zonalde bateko aberastasuna kalkulatzeko gehien erabiltzen den adierazleetako bat. Datu hori aztertuz gero, errenta-mailarekin kontraste nabarmena egiten duela ikus daiteke. Laudio, adibidez, 33.517 eurokoa da Barne Produktu Gordina pertsonako (2016ko datuen arabera betiere). Errenta-maila, aldiz, 18.628 eurokoa da. Aberastasunaren sorreraren eta aberastasunaren banaketaren artean sortzen den kontrastea da hori. Hau da, eskualde batean ekoizten den aberastasun guztia ez da eskualde horretako biztanleen esku geratzen. Baina horrek beste erreportaje baterako emango luke.

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA hemen

KOMUNIKAZIO KANPAINA BAT MARTXAN JARRI NAHI DUZU?

IDATZI
publizitatea@aiaraldea.eus

ZURE PRODUKTU, ZERBITZU EDO EKITALDIK IRAGARRI NAHI DITUZU?

EDO DEITU
688 625 394 zenbakira



A I A R A L D E A
K O O P E R A T I B A
E L K A R T E A

KOOPERATIBAREN OHIKO BATZAR NAGUSIA
KOOPERATIBAKO BAZKIDEEI DEIALDIA

EGUNA: 2018ko martxoak 30, larunbata
ORDUA: 09:30, lehenengo deialdia. 10:00, bigarren deialdia
TOKIA: Lamuza parkeko Kasinoan, LAUDIO (Araba)



agenda

2019/03/20
2019/04/02

Abian dago dagoeneko

eskualdeko Korrika Kulturala



Apirilaren 4an abiatuko da Korrika, baina Aiaraldera iritsi da dagoeneko euskararen aldeko olatua. Aurkezpenak egin dituzte eskualdeko hainbat tokitan, eta ikusgai daude dagoeneko hainbat herritako Korrika Kulturalen egitarauak.

Amurrión, adibidez, egitarau oparoa aurkeztu dute. Gaur -martxoak 20- Mintzodromoa egingo dute. Hilaren 26an Es-

ekintza guztiak. Laudion ere egitarau osoa plazaratu dute. Apirilaren 4an, adibidez, *Gure oroitzapenak* filma ikusteko parada egingo da Laudioalden, 19:00etan, doan.

Webgune berezia abian

Korrikari buruzko webgune berezia topatu daiteke Aiaraldea.eus atarian. Bertan emango da egingodirenekitaldien berri.

Datorren larunbatean Laudion, Aiaraldeko Bulkada Eguna

Martxoaren 23an egingo du Aiaraldeko Ernaik Bulkada Eguna. Herriazoka, muralmargotzea, haurrentzako jolasak, sortzaileen gunea, DJWSBren musika eta argizki erakusketa egingo dira goizean. Altsasu eta Amurrioko erre-presio kasuei buruzko hitzaldia ere egingo dute, 12:30ean. Gero txean.



Haurrentzako baratza eta sukaldaritza

Kirikiñorekin



Proiektu berria jarri du abian Laudioko Kirikiñok. Baratza eta sukaldaritza izango dira egitasmoaren bi ardatzak. 2006 eta 2013 urteen bitartean jaiotako haurrei bideratua egingo da ekimenari. Martxoaren 29an egingo dute lehen irteera baratzerara, Ugarte plazatik 17:30ean abiatuta. Hurrengo egunean egingo dute sukaldaritza tailerraren lehen saioa, Zubikoetxean, 11:30etik 16:00etara. Izena emateko azken eguna 29a izango da, horretarako Kultur etxera joan, izenemateari-rikino@gmail.com helbidera me-zua bidali edo 688 726 665 zenba-kira deitu behar da.

Urrezko Guk sariaren ekitaldia larunbatean



Datorren larunbatean -martxoak 23- izango da Urrezko Guka emateko ekitaldia, arratsaldeko zazpie-tan, Amurrio Antzokian. Aia-rra Dantza Taldeko kideek ja-soko dute saria, 35 urtetan eginiko ibilbide eta lanaren aitortza gisa.

MUSIKA

03.30
Larumbata
19:00 URDUÑA
NOVA MUSICA ANTIQUA
Alondegia

03.31
Igandea
17:30 LAUDIO
IZTURITZEKO
TXISTULARIAK
Kasinoa

UMEENTZAKO EKINTZAK

03.23
Larumbata
17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
“Koloretako basamortua”
eskulanetako saioa eta
askaria
Lamuza parkeko ludoteka

TAILERRAK

03.22
Ostirala
18:00 AMURRIO
UKELELE TAILERRA
Prezioa: 10 euro
(martxoaren 20a da izena
emateko azken eguna)
Musika eskola

03.23
Larumbata
10:00 OROZKO
SAKELAKOXA ETA INTERNET
ERABILITZEKO IKASTAROA
ADINEKOENTZAT
Kultura etxea

03.28
Osteguna
10:30 AMURRIO
YOGA SAIOA
Korrika kulturalaren barruko
egitasmoa
AEK

HITZALDIAK

03.21
Osteguna
17:00 LANTENO
“SENDABELARRAK EUSKAL
HERRIAN”
Eskola zaharrak

03.21

03.24
Igandea
10:30 BARANBIO
ARABAKO III. CHALLENGE
Herrian

ANTZERKIA BESTELAKOAK

03.22
Ostirala
LAUDIO
GAZTEFILMFEST JAIALDIA
Egitarau osoa Aiaraldea.eus
atarian ikusgai

03.23
Larumbata
LAUDIO
AIARALDEKO BULKADA
EGUNA
Egitarau osoa Aiaraldea.eus
atarian ikusgai

03.24
Larumbata
LAUDIO
GAZTEFILMFEST JAIALDIA
Egitarau osoa Aiaraldea.eus
atarian ikusgai

03.23
Larumbata
19:00 AMURRIO
URREZKO GUK SARIAREN
EKITALDIA
Amurrio Antzokia

03.27
Asteazkena
11:00 LAUDIO
RUPERTO URKIJORI
OMENALDIA
Lamuza plaza

INFO +
aiaraldea.eus

Tolo

Restaurant

MARTXOXA

21 18:00

Igor Arzuaga

22 18:00

Kultura

Iragan astean plazaratu zuten *La pequeña Suiza* pelikularen trailerra. Aiaraldean grabatu dituzte filmeko eszena gehienak: Artziniegan, Maroñon, Orozkon, Arespalditzan

eta Laudioko Ermualde santutegian, besteak beste. Kepa Sojo zinemagile audioarrak zuzendu du pelikula, hainbat aktore ezagunen parte hartzearekin.

Apirilaren 26an estreinatuko dute Kepa Sojok Aiaraldean grabatutako *La pequeña Suiza* filma



Aiaraldeko hainbat txokotan grabatu dute filma: Artziniegan, Orozkon, Laudioko Ermualde santutegian, Maroñon edota Arespalditzan. EOne Films Spain (Copyright)



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Iragan astean plazaratu zuten *La pequeña Suiza* filmaren trailerra. Datorren apirilaren 26an estreinatuko dute Kepa Sojo zinemagile audioarraren bigarren lan luzea. Iragan udazkenean grabatu zuten pelikula Artziniegan, Maroñon, Arespalditzan eta Laudioko Ermualde santutegian, hainbat aktore ezagunekin. "Orozkon, Urkiolan eta Gasteizen ere egon ginen", azaldu Sojok, "gure lurraldean filmatzea oso gozagarria izan da. Gainera, babes handia jaso dugu eskualdean".

Zinemagile audioarrak adierazi duenez, gidoia idatzi zutenetik zuten argi pelikula Aiaral-

dean egin nahi zutela, "eskualdeko lokalizazioa hobezinak zirelako istorioarentzat".

Telleria izeneko herri baten nondik norakoak kontatzen ditu pelikulak. Aurkikuntza arkeologiko baten ondorioz, herriko bizilagunek Suitzara anexionatzea erabakiko dute, eta horrek hainbat egoera surrealista sortuko ditu.

Komedia bat da *La pequeña Suiza*, Kepa Sojok orain arte egin dituen ia lan guztiak bezala. Hala ere, pelikula berri hau ezberdina dela nabarmendu du zinemagileak. "Orain arte egin ditudan filmak umore zentzugabe edo surrealista jorratzen zuten". *La pequeña Suiza*z, aldiz, "umore kostunbrista" jorratzen du. "Ber-



Kepa Sojo

Pelikularen zuzendaria

"Gidoia idatzi genuenetik genuen argi filma Aiaraldean egin nahi genuela"

langaren zinema omentzen du, apaltasunez. Horrez gain, Europako landa-zinema frantziar, italiar edota britainiarraren eragina du".

Pelikula korala da. Hainbat aktore ezagun agertzen dira trailerrean: Maggie Civantos, Jon Plazaola, Secun de la Rosa, Ramón Barea, Ingrid Garcia Johnson, Karra Elejalde eta Antonio Resines, besteak beste. Kepa Sojok berak agerraldi txiki bat egiten du, ertzain baten papera eginez.

Zinemagile audioarra oso pozik dago lortutako emaitzarekin. "Postprodukzioa amaitzen ari gara. Fase hori oso bizia izan da, Bartzelonan, Madrilan eta Lisboan egin baitugu. Baina oso atseginak izan dira pelikularen

fase guztiak". *La pequeña suiza* amaitu arren, Sojok ez dio lan egiteari utzi. "Beste pelikula baterako gidoia dugu idatzita, eta beste ideia bat ere garatzen ari gara. Baina ezer gutxi esan dezaket orain, proiektuak baino ez direlako".

Artziniega pantaila handian

Honakoa ez da izango Artziniega pantaila handian agertzen den lehen aldia. 2015. urtean *Gernika* filmaren eszena ikusgarrienak (Kondor legioaren bonbardaketarenak) grabatu zituzten bertan. 2010ean, aldiz, Algis Arlauskas zuzendaria bertaratu zen herrira, *Patria* filma luzea grabatzera Errusiako Teletelera Zentralerako.

Amorante musikariak girotuko du Aiaraldea Ekintzen Faktoriaren Udaberri jaia



Arratsaldean eskainiko du kontzertua Amorantek. Maköki

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Udaberri jaia egingo du Aiaraldea Ekintzen Faktoriak martxoaren 30ean. Audioko Lamuza parkeko Kasinoan egingo dituzte ekintza guztiak, arratsalde. Umeentzako tailer eta jolasak egongo dira 16.30etik aurrera, eta Disko Txantaren emanaldia egongo da ja-

rraian, 17.00etan. Amorantek kontzertua eskainiko du gero, 19.00etan. Emanaldi berezia eskainiko du musikari gipuzkoarrak, hainbat musika estilo uztartuta: koplak, flamenkoa eta doinu afrikarrak, besteak beste. Ibilbide labur baina oparoa egin du Elgoibarko artistak: 2016an plazaratu zuen lehen diskoa eta 2017an bigarrena.

Arabako bertsolari txapelketa finalerdietan agurtu du Serapio Lopezek

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Serapio Lopez baranbioar martxoaren 9an agurtu zuen Arabako Bertsolari txapelketa. Duela bi urte finalista izan zen, baina 2019an ez du zortea alde izan: bosgarren bukatu zuen Legutioko finalerdia. Ondorioz, finaletik kanpo geratu da. Xabi Igoa aramioarrak irabazi zuen lehen finalerdia, eta horrenbestez, bera izango da lehen finalista. Larunbat honetan, martxoaren 16an, erabakiko da Dulantzín nortzuk izango diren martxoaren 30eko finalean abestuko duten 6 parte hartzaileak.

Serapioren agurra

Saio berezia izan zen Serapio Lopezentzat. Izan ere, azken agurrean abestu zuen larunbatekoak izango zirela txapelketako bere azken bertsoak: "Lehenengo hartatik 35 urte dira igarota / kitto, nere azken txapelketako bertsoak gaur ditut bota / ni Lujanbio, Txirritak euki zuen mailan ez nago ta / Nire aipamenak izango dira bihar arte gehien jota!".

Finaleko sarrerak salgai

Gasteizko Printzipal Antzokian jokatu da 2019ko txapelketako finala. Dagoeneko salgai daude sarrerak. Aiaraldea hedabideak 2 sarrera zozketatuko ditu erabiltzaileen artean.

Disko berria plazaratuko du laster Moonshine Wagon taldeak

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Straight From The Mud diskoa argitaratuko du laster Moonshine Wagonek. Iragan astean plazaratu zuten lan berriaren singlea: *My Mind Is Mine* abestia. Sare sozialetan jakinarazi dutenez, Tennessee (Estatu Batuak) Roots Union Records zigiluarekin aterako dute diskoa eta Chromaticity Studiosen grabatu dute.

Goiatz Duttok, Joel Bruñak, Lander Louridok eta Victor Martinek osatzen dute taldea. Besteak beste, mandolina, baxua eta gitarra uztartzen dituzte abestietan. Goiatz Dutto audioarraren hitzetan, "dato-



Goiatz Dutto audioarra dago taldean. Moonshine Wagon

rren astean aurkeztuko dugun diskoaren aurrerapena da bi-deoklipa".

"Aste Santuan eta udan biran ibiliko gara Espainiatik eta Europatik. Irailean, berriz, Estatu Batuetara joango gara",

adierazi dio abeslariak Aiaraldea hedabideari.

Eskualdean ere egongo da taldea ikusteko aukera. Izan ere, maiatzaren 18an Orozko-rock jaialdian emango dute kontzertua.

Herriko gazteek hautatu dituzte Gaztefilm Fest zinema jaialdiaren pelikula laburrak



Hainbat gazte aritu dira filmak hautatzen. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Gaztefilm Fest zinema jaialdian eskainiko dituzten pelikula laburrek epaimahai zorrotza gaintitu behar izan dute emanaldietan egoteko. Izan ere, Audio Institutuko eta Audio Ikastolako ikasleek erabaki dute zeintzuk ikusi ahalko diren.

Helena Gonzalez antolatzaileak argitu du jaialdiaren helburua dela gazteak parte aktiboa izatea eta horrek ahalegina eskatzen duela. Gauzak horrela, aurreko hilabeteetan herriko ikasleek ikusi eta aukeratu dituzte hurrengo asteburuan eskainiko diren film laburrak.

Uxue Derecho, Swati Tewatia, Eder Laparra eta Sandra Arnaiz

Laudio Ikastolako gazteek prozesu horretan parte hartu dute eta adierazi dute lan zaila izan dela. "Kanpoan pelikula interesgarriak geratu dira, Aeronauts, adibidez" esan du Parrak.

Swati Tewatia nabarmendu du filmeetan jorratzen dituzten hainbat gai euren egunerokotasunean daudela maiz: "baina ez ditugu eztabaidatzen gure artean". Amets Meatza alkateordeak goraipatu du jaialdiak bat egiten duela Audio Top Zinema programaren filosofiarekin: "gazteekin zenbait balio lantzea pelikulen bitartez".

Martxoaren 22an hasi eta 23ra arte luzatuko da Gaztefilmfest jaialdia Laudion. Egitarau oparoa prestatu dute ekimenaren antolatzaileek.

Urduña Gazte Egunerako motorrak berotzen hasi dira

Datorren apirilaren 7an egingo dute Urduñako Gazte Eguna. Egitarauari azken ukituak ematen dabilta gazte asanbladako kideak, baina egongo den eskaintzaren zenbait xehetasun aurreratu dituzte. Besteak beste, egun horretan jokatu dira Aiaraldeko Frontenis Txapelketaren finalak. "Horrek eskualdeko gazte asanbladek egunean zuzenki parte hartzea bermatzen du, giro ezin hobea izango dugunaren seinale", ziurtatu dute antolatzaileek.

Nabarmendu dutenez, "bi funtzio nagusi" beteko ditu gazte egunak. "Alde batetik, Urduñan gazte asanblada antolatu bat dagoela erakustea, herriko gazteekin eta gazteontzat egitarau polit bat aurrera ateratzeko gaitasuna duena. Bestetik, gazte berriak aktibatu eta asanbladan eragiteak duen garrantzia ikustaraztea". Datozen asteetan emango dute egitarau osoaren berri.

Urteko plangintza

Asanbladako kideek jakinarazi dute "oso gogotsu" daudela. "Gorakada eta beherakadak ditugu, beste edozein mugimenduk bezala, baina geroz eta gazte gehiago biltzeko apustu argia dugu". Gauzak hala, gazte egunaren ostean beste hainbat egitasmo helduko diete. Besteak beste, Otxomaioetan kontzertu batzuk antolatzea dute buruan, Txupinazo egunean.

Aiaraldeko euskararen historia

V. Atala: Noiz galdu zen
euskara Laudion?**AKETZA MERINO**
Historialaria

Laudio izan zen Goi Nerbioiko azken herri euskalduna, Baranbiorekin batera. Anitzak dira hau baieztatzen duten datuak. II. atalari aipatutakoaz gain, 1870ean Ramón Ortiz de Zarate politikari arabarrak Audio euskalduna zela adierazi zuen. Ladislao Velascok emandako datuen arabera, Audioko biztanleriaren %76,33 euskalduna zen 1867. urte inguruan. Duvoisin Kapitainak 1879an esan zuenez, Audio euskalduna zen oraindik: Zabala, Bitorika, Areta, Isusi eta Dubiris auzoak aipatu zituen kapitain frantsesak, hain zuzen. Laudion dotrina bat euskaratu zen 1891n, herriko apai-zei ordainduta, horren beharra zegoelako. Beraz, Audioko euskalduntasuna XIX. mendean ukaezina da.

Hala ere, desagertze prozesua hasia zen orduraino eta dirudienek hamarkada horretan jaio ziren bailarako azken euskaldun natiboak. Kontuan hartu behar dugu hizkuntza ez zela egun batetik bestera desagertu. Adibidez, 1927an, Larrabe baserrian bizi ziren Manterolatarrak aitarekin edo haien artean bakarrik egiten zuten euskaraz baina ez beste jendearekin. Lekuonak esandakoaren arabera, 1934an auzo bateko baserri batzuetan euskaraz hitz egiten zen ("Audio'n beriz, barrio edo balara bat osatzen duten baserri batzuek"); Areta auzoa ia guztiz erdaldundurik zegoen ordurako. Nahiz eta Odón Apraizen ustez Bizkaia ondoko baserrietan eta Aretan euskara mantenduko zen mendearen erdialdean, dauzkagun datuek garai horretan Bizkaitik etorritakoek eta herriko zaharrenek baino ez zekitela euskaraz esaten digute. Dena den, inork ez zuen

euskaraz kalean hitz egiten Laudion, frankismoa zela eta.

Aurreneko atalean aipatutako Bilboko 1920. urteko erroldatik hartutako datuek baieztatzen dute Laudion euskarak XIX. mendeko azken bi hamarkadetan atzera egin zuela, XX. mendeko hasieran jaiotako euskaldunak urriak zirenetan. 1890etik aurrera jaiotakoentz artean, erdaldunak euskaldunak baino ugariagoak ziren. 1880an baino lehen jaio zirenen artean, aldiz, euskaldunak nagusi ziren, nabarmen. Beraz, erroldako datuak bat datoz eman ditugun erreferentziekin; hau da, 1880.

urtera arte indartsu egon zen euskara Laudion, atzera egiten hasi arte. 1900. urtearen ostean jaiotako euskaldunak urriak izan zirenetan, gainera, izenak eta abizenak aztertuta, ia guztiak familia berekoak zirela ikusi dugu. Urte haietan seguraski arrunta izango zen txikiei gaztelaniaz egiten entzutea, gertu zeuden zaharrenek euskaraz egiten zuten bitartean.

1920. urtean 245 audioar zeuden Bilbon bizitzen. Hauetariko 137 euskaldunak ziren, %55,91. Baina bakarrik 1890. urtea baino lehen jaiotakoak hartzen baditugu, euskaldunen kopurua

%65,38ra igotzen da. Euskararen galera-prozesuan sakontze aldera, lagungarria izan da erroldan agertzen den euskaldun bakoitzaren identitatea aztertzea. Ikusi dugunez, ohikoa izan zen familia berean kide batzuk euskaraz jakitea eta beste batzuk ez.

Esate baterako, Margarita Otegui Sagastizabal euskalduna zen baina bere neba, urte bat gazteena, ez; Urquijo Ibarguengoitia anai-arrebek euskara zekiten, gazteenak izan eziz. Familia askotan ikusi dugu neba-arreba zaharrenek bakarrik zirela euskaldunak; baina kontra-

ko kasu batzuk ere topatu izan ditugu. Bat aipatzearren, Andresa Pagazaurtundua Eguia, 1894an jaioa, euskalduna zen baina bere ahizpa, 6 urte zaharragoa, ez.

Era berean, familia batzuek besteek baino geroago galdu zuten euskara, logikoa denez. Adibidez, Larrazabal Olartecoechea bi ahizpek, 1880ko hamarkadan jaioak, ez zekiten euskara; Acha Larreta lau anai-arrenek ere ez. Eta beste pertsona batzuek, aurreneko hamarkadetan jaioak, ere ez; ezin dugu ahaztu adin guztietako erdaldunak topatu ditugula erroldan.



Kirola



“Himalayako Ama Dablam gailurrera goaz, eskalada askodun 6.856 metroko mendi teknikora”

TASIO MARTIN (Urduña, 2000) eta **JOSEBA ELORRIETA** (Basauri, 1964) AITA SEMEAK DIRA. “GORBEITIK AMA DABLAM” ESPEDIZIOA EGINGO DUTE APIRILEAN.



Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Urduñatik Himalayara joango zarete aita-semeak. Nolatan?

Tasio: Ama Dablamera joango gara apirilaren 2an, hilabete eta erdirako. Maiatzaren 16an itzuliko gara.

Joseba: Lehenbizi trekking bat egingo dugu, aklimatazioarako. Apirilaren 23an abiatuko gara akanpalekura. Gurekin Trekkinga egitera norbaitek etorri nahi badu, hiru bidaia plaza ditugu oraindik!

Everest inguruan egonak zarete?

Tasio: Aita behin baino gehiagotan egon da. 1995ean ama eta aita joan ziren lagun batzuekin, baina amak soilik egin zuen tontorra, aitari motxila erori zitzaion eta...

Joseba: (Barreak) Sei mila metrotatik jaitsi behar izan nintzen! 2010ean hirurak joan ginen, Everesteko trekkinga egitera. 1995ean Cho Oyu egon nintzen, eta 1998an Everest iparraldean. 2010ean Tasio eta bikotearekin joan nintzen, berak 9 urte zituela. Trekkinga edonork egin lezake, ibiltzeko 4-6 orduko ohitura pixkat badu. Jubilatua dira hara doazen gehienak denboraldia hastean: arabiarak, australiarrak, estatubatuarak... Hemen ez dago ohiturarik, baina beste toki askotan bai.

Zer nolako esanahia du abenturak, pertsonalki, zuentzat?

Tasio: Niretzat ez da mendi bat igotzea soilik. 2010ean egon nintzenean, itzuliko nintzela pentsatu nuen, baina ez nuen uste horren goiz izango zenik. 6.856 metro ditu. Aurrekoan Kala Pathhar igo genuen, 5.624 metrokoa.

Halako altuerak zelako ondorioak dituzte gorputzean?

Joseba: Oxigenoa da gure gasolina, horretan doa ener-

gia gehien. Gure funtzio guztiak oxigenoari esker dira: Sabelak, gibelak, bihotzak...oxigenoarekin funtzionatzen dute. Metroen arabera gorputza asko aldatzen da: buruko mina, ahulezia... 3.000 metrotik gora atmosferaren gasak aldatu egiten dira, eta horrek globulu gorriak handitzea dakar. Ondorioz, bihotz taupadak azkartu eta gogortzen dira, odolari gehiago kostatzen zaio mugitzea, eta guri ere. Izaeran, mugimenduan, erabaki uneetan... denean eragiten du. Egokitzapenaren lehen egunetan oso arraro sentitzen zara. Pazientzia izan behar da, pasa beharreko prozesua da.

Nolakoa izan da prestaketa prozesua?

Tasio: Ordenagailuan ordu asko sartu ditugu agentziarekin. Prestaketa fisikoarekin duela lau hilabete hasi ginen serio entrenatzen. Ingalaterran egon naizenez, bakoitzak korrika prestatu du oinarri zabala. Orain gauza espezifikoagoekin gabiltza: Txarlazora 15 kilo soinean birritan igotzen eta abar. Ama Dablamen maila teknikoaren antzekoak gauzatzen saiatuko gara orain, Pirinioetan ekintza luzeak garatuta. 5.500 metrotik gora, eskalatzeko harkaitza da nagusi Ama Dablamen. Hiru eguneko eskalada kalkulatu dugu.

Joseba: 4.500metrotik 6.800 metrora motxila 3 gau igarotzeko eramango dugu prest, baina espero dugu bi gau soilik ematea bidean akanpalekutik kanpo. Pisua, denbora oreka... dena kalkulatu behar da. Ura egiteko gasa eraman behar da, eguraldiak ere asko baldintzatzen du... Lau egun asko dira.

Zein izen jarri diozue espedizioari?

Joseba: “Gorbeitik Ama Dablamera”, bertan baitugu mendi aterpetxea. Mendia prozesu baten ondorioa izan da guretzat: txikitatik egin ditugu familian abenturak. 90ko hamarkadan Himalayan ibili ginen, Tasiok 9 urte zituela Alpeetan geunden, hilabete bat zuela Tasiok Piri-

niotan pasa zituen bere lehenbiziko oporrak. Laponian bizikletaz ibili ginen, kanoan ere... Mendia oso gustuko dugu denok, eta horregatik goaz familian Himalayara. Tasio oso gaztea da baina Euskadiko eskalada eta alpinismo selekzioan egona da, askori gustatuko litzaiguke horrelako curriculum!

Tasio: Helburua Ama Dablam igotzea da, soka finkorik gabe. Apropos aukeratu dugu denboraldi hasiera data: komertzialak doazenean soka finkoekin osatzen dute bidea turistek erosotasunerako, sokatik jarraika igo daitezuten. Gure plana ez da hori, mendiaz bere naturaltasunean gozatu nahi dugu.

Laguntzarik jaso al duzue antolakuntzari dagokionez?

Joseba: Deustuko lagun batek kamiseta logoztatu digu, eta Mendiko Lagunak elkarteak asko lagundu gaitu, Mendi astean proiektzioa eskaintzearen truke. Eskerrak eman nahi dizkiegu, diruaz gain babesa sentitzea polita da.

Tasio: Ikus-entzunezkoa osatu nahi dugu espedizioarekin. Ea beste mendi taldeek proiektzioak enkargatzen dizkiguten!

Ez da ohikoa familia espedizioa egitea.

Joseba: Seme-alabak izateak ez du zaletasunari uko egitea esan nahi.

Tasio: Ibilbide antzekoa egin dute nire amak eta aitak, gazte ezagutu baitziren. Baita nirekin ere. Ni jaio nintzenean motxilan joan nintzen mendira, bizikletaz aulkian, Frantzia eta Txekiako erreketan 10 egunez kanoan... Gaztetu ahala mendian eta eskaladan hasi ginen, geroz eta gauza teknikoagoak egiten.

Joseba: Niretzat oso aberasgarria da, bi aldiz egingo dut bide bera. Umea izan ostean, etxe inguruko mendiak hasi ginen, eta berriro bukatuko dut Himalayan. Bizi bide berezia izan da. Umeak izan arren, edozein kirol edo abentura egin litekeela adierazteko modu bat da.

Kirola

“Crossfita ez da soilik sasoiari dagoen jendearentzat, edonork praktikatu dezake”



OIHANA MOYA OLIVERrek (Laudio, 1995) HIRU URTE DARAMATZA CROSSFITA PRAKTIKATZEN. IBILBIDE OPAROA EGIN DU: ENTRENATZAILE GISA DAGO HAINBAT GIMNASIOTAN ETA EMAITZA ESANGURATSUAK LORTZEN ARI DA MUNDUKO TXAPELKETA BATEAN.



Testua eta argazkiak
Txabi Alvarado Bañares

Crossfitean aritzen zara orain, baina berez karatean hasi zenuen zure kirol ibilbidea.

Oso txikia nintzela hasi nintzen karatean. Lau urte-ekin apuntatu ninduten gurasoek, txikitatik izan naizelako oso aktiboa. Urduñan hasi nintzen. Gero etxetik aldatu eta Amurrión jarraitu nuen kirola praktikatzeko eta, azkenean, Laudion amaitu nuen. Gerriko beltza atera eta karate klaseak ematen hasi nintzen.

Gero crossfita modan jartzen hasi zen eta nire lagun batzuk kirol hori praktikatzeko hasi ziren. Niri ere atentzioa deitu zidan eta astean bitan praktikatzeari ekin nion, apurka-apurka, duela hiru urte. Baina iragan irailean hasi nintzen modu serioan praktikatzeko.

Badago antzekotasunik karatearen eta crossfitaren artean?

Norberak bere mugak gainditzeak sortzen duen sententzia da gehien erakartzen didana. Horrez gain, taldean

entrenatzea asko gustatzen zait eta hori da gehien harrapatzen zaituena. Ariketa mota asko dauden crossfitean. Horrek eragiten du berehala hobetzea zerbaitetan, eta asko motibatzen zaitu. Norbere mugak gainditzearen filosofia eguneroko bizitzan ere aplikatzen laguntzen dizu, gainera.

Karate eta crossfita kirol indibidualak direla esan daiteke, baina taldeak pisu handia du bietan, ez?

Bai. Taldean entrenatzeak elkar laguntzea dakar, elkar animatzea. Zure taldekideek nola hobetzen duten ikusten duzu. Horrek, era berean, zu ere hobetzeri bultzatzen zaitu.

Zertan da ezberdina crossfita beste kirolekiko?

“Hamarreko kirolari bat” sortzea bilatzen du crossfitak, gaitasun fisiko guztietan trebea izatea: malgutasuna, erresistentzia, abiadura eta abar. Zenbait diziplina elkartzen ditu horretarako: halterofilia, gimnasia eta entrenamendu funtzionalak, besteak beste.

Entrenamenduak oso anitzak dira. Baliteke egun

batean indarra soilik lantzea, beste batean malgutasuna, beste batean hainbat diziplina batera... entrenamendu batean jarduera bakarra landu daiteke, edo bat baino gehiago. Hori da erakargarria: ez dugula inoiz errutina bat jarraitzen. Egutero gauza ezberdinak egiten ditugu eta, ondorioz, ez gara aspertzen.

Txapelketetan ere lehiatzen zabilta, ez?

Bai. Nire lehenengo norgehiagoka crossfitean hasi eta lau hilabetera egin nuen. Oso gustuko izan nuen. Karatean beti lehiatu izan naiz. Apur bat lehiakorra naiz, baina modu sanoan (barreak). Orduz geroztik taldekako beste txapelketa batzuetan parte hartu dut. Une honetan Open CrossFit izeneko txapelketa batean parte hartzen ari naiz. Hainbat proba egin behar ditut astero. Nire kabuz egin behar ditut, astelehenetik ostiralera. Emaita webgune batera igotzen dut. Munduko norgehiagoka da eta estatuta banatzen da gero. 16. postuan nago, 1.400 nesken artean. Nahiko pozik nago, parte hartzen dudana lehen aldia delako. Poztasun handia sortzen dit sailkapenean niretzako erreferenteak diren

kirola



“16. postuan nago munduko txapelketa batean, 1.400 neskaen artean”

neska askoren ondoan egoteak. Bost astez arituko gara probak egiten. Gero emaitzen batezbestekoa egiten da eta estatuko lehenengoa CrossFit Games izeneko munduko txapelketa joango da. Momentuz ez dut horretara aspiratzen (barreak). Baina txapelketa balio dit nire burua neurtu eta estatuko sailkapenean non nagoen ikusteko.

Baduzu beste erronka edo txapelketarik esku artean?

Bai. Aipatutako txapelketa aste honetan amaituko da. Nik Bilbon ere entrenatzen dut, eta CrossFit Box bakoitzeko bi kirolari onenak Espainiar estatuko beste txapelketa batera doaz. Nire hurrengo erronka izango da bertara joan eta zer edo zer lortzen saiatzea.

Entrenamendu eta txapelketa guztien emaitza dira txapelketak. Nik ez du lehiaketak irabazteko entrenatzen, egunero nire marka gaintzeko baizik. Txapelketak ez ditut kanpora begirako zerbait bezala ikusten, baizik eta niri begirako zerbait bezala. Horregatik, ez da nire helburu nagusia norgehiagokak irabaztea. Baina tira, baten bat irabazten badut ere primeran, e (barreak)!

Crossfita modan jarri dela aipatu duzu. Zer nolako presentzia du kirolak eskualdean?

Bai, gero eta jende gehiagok praktikatzen du kirol hau, bi arrazoiengatik: modan jarri delako eta kirol honek berez badituelako gauza erakargarri asko (ariketa aniztasuna, norberaren mugak gaintitzea, talde giroan egotea eta abar). Kanpotik ikusita badirudi astakeriak egiten ditugula, baina mundu guztiak praktikatu dezakeen kirola da hau, ariketa guztiak direlako moldagarriak. Crossfita ez da soilik sasoian dagoen jendearentzako jarduera, jende orok praktikatu dezake.

Batzuek kirolarekiko adikzioarekin lotzen du crossfita. Zer esango zenieke hori uste dutenei?

Ez dela horrela. Crossfitaren irudia hori da: pertsona oso muskulatuak, oso sasoian daudenak, oso indartsuak... baina kirol hau berez edonork egin dezake. Zure mugen arabera praktikatu dezakezu crossfita.

“Emakume ahularen irudiarekin guztiz apurtzen du crossfitak”

Dieta berezirik jarraitu behar da?

Egia da ondo jaten baduzu hori nabaritu egiten dela entrenatzen duzunean. Baina ez duzu dieta zorrotz bat jarraitu behar. Ni saiatzen naiz ondo eta dagokidanean jaten, baina ez dut inolako dietarik jarraitzen.

Gainera, pertsona bakoitza mundu bat da. Niri ondo datorkidana agian zuri ez doakizu ondo. Crossfitak ahalbidetu egiten du hori: zure gorputza eta burua hobeto ezagutzea, noraino heldu zaitezkeen (eta noraino ez) jakitea...

Nola uztartzen da pertsonen profil aniztasun hori entrenamendu batean?

Estandar moduko bat dago. Entrenamendu bakoitzean ariketa kopuru zehatz bat eskatzen da. Nik indar asko ez badut eta horrek mugatzen banau ariketa horiek moldatu ditzaket: pisu gutxiago jartzen, gomekin lagunduz... ariketa guztiak dira norberaren gaitasunetara moldagarriak.

Horrez gain, aipatu nahiko nuke crossfita nahiko kirol parekidea dela. Emakume eta gizonek garrantzi bera dute kirol honetan. Sariak parekatuak dira, berdina irabazten dute. Gainera, crossfitak ahalbidetzen dit nire emakume erreferenteak emakume indartsuak, botereitsuak eta fisikoki muskulatuak izatea. Horregatik uste dut crossfitak apurtu egiten duela emakume irudi estereotipuekin, kirol hau praktikatzen duten neskek oso indartsuak direlako fisikoki zein psikologikoki, euren bizitzaren jabe dira. Hori oso gogoko dut, emakume ahularen irudiarekin guztiz apurtzen duelako.

Nik entrenatzen dudana lekuetan emakumeak dira gehiengoa, klaseetan gutxienez. Askok gustatzen zait hori: emakumeen presentzia ez dela soilik handia profesionaletan, baita zaleen artean ere.

Kirola

TXIRRINDULARITZA

Pablo Fernandezek eta Ivan Bonilla garaile Aiarako Birako lehen bi etapetan



Amurrión egin zen Aiarako Birako lehen etapa, larunbatean. Nagore Portillo

Testua

Aimar Gutierrez Bidarte

Aiarako Birak talde eta txirrindulari ugari erakarri ditu aurtun eskualdera. Larunbatean Amurrión, lehen etapen, 181 kirolarik parte hartu zuten. Euskal Herriko taldeek ez ezik, Zaragoza, Huesca, Soria, Valladolid, Segovia, Kantabria eta Asturiasekoek ere izena eman dute aurtun.

Lehiaketaren berezitasuna izan da aurtun neskek ere izango dutela bere tarte proban. Berez, atzoko etapari dago-kionez, Pablo Fernandez kantabriarra izan zen garaile eta, ondorioz, liderra.

Lasterketan ez ziren ihesaldi nabarmenak ikusi eta sprintean erabaki zen garaipena. Nesken artean Sandra Gutierrez izan zen onena.

Igandean, aldiz, bigarren eta-

pa egin zen, Okondon. 45 kilometroko ibilbidea bete zuten txirrindulariek. Eguraldia hotza eta euritsua izan zen eta garaipena sprintean erabaki zen berriro.

Azken txanpa horretan Ivan Bonilla izan zen azkarrena eta Ivan Romeo sartu zen bere atzetik. Lortutako abantailak lidergoa ere eman zion; sailkapen orokorrean Pablo Fernandez eta Ivan Romeo ditu atzean.

MENDIZALETASUNA

Anbatora txangoa eta eskalada ikastaroa izango dira Matxinkortako martxoko ekintzak



Anie mendian izan ziren udazkenean, besteak beste. Matxinkorta

Testua

Izar Mendiguren Cosgaya

Martxoaren 24an egingo du hurrengo irteera Matxinkorta mendi taldeak. Anbatora joango dira mendizaleak, Urkiola parke naturalera. Ohi bezala, bi ibilbide proposatu dituzte: laburra eta luzea. 8:30ean aterako dira Arrankudiagako plazatik, eta bazkalostean itzuliko dira herrira.

Horrez gain, eskalada ikastaroa antolatu dute elkartekideentzat Oron. Sare sozialetan zabaldu dituzte 2019ko irteera guztiak, hilabetero bi jardura eskainiko dituzte. Apirileko txangoetarako La Arboleda eta Via Ferrata bat aukeratu dituzte. Ohi bezala, izena emateko Ekilore dendara jo beharko da, edota matxinkorta@gmail.com helbidera zein Facebook kontura mezua bidali.

FUTBOLA

CD Orduñako taldea lehenbiziko postuan dago,

Testua

Izar Mendiguren Cosgaya

CD Orduñako gizonezkoen lehen taldea denboraldi itzela egiten ari da. Hogeita bostgarren jardunaldia igaro berrian, lehen postuan daude gorritxoak. Larunbatean jokatu zuten bigarrenen kontra -Ibarsusi taldea eta 3-3 bukatu zen partida. Ondorioz, igoera postuetan dago eskualdeko kluba. Lehen itzulia bigarren postuan bukatu zuten urduñarrek, 9 partida irabazita, bat berdinduta eta bat galduta. Alabaina, bigarren bueltan Ibarsusi gailentzea lortu dute.



Martxoaren 10eko partida bukatuta, garaipena ospatu zuen taldeak. CD Orduña

TXIRRINDULARITZA

Jose Mari Basualdo omenduko dute eskualdeko txirrindulari zaleek apirilean

Testua

Aitor Aspuru Saez

Jose Mari Basualdo txirrindulari profesional ohia omenduko dute Amurrión apirilaren 5ean. Ekitaldia 13:00etan izango da Reforrekoko bizikleta museoan eta gero, 14:30ean, bazkaria egingo dute Bideko jatetxean.

Horretan parte hartzeko apirilaren 1a baino lehen izena eman beharra dago Ormaetxea edo Koba Cycling dendetan Amurrión edota Aiarabiken Laudion. Bestela, 629 448 125 telefono zenbakira deituta ere egin daiteke. Menuaren prezioa 30 eurokoa izango da.

Juan Antonio Aldama antolatzailerak azaldu du eskualdeko txirrindularitza zale askok parte

hartuko dutela eta, genienez, 250 lagunentzako lekua egongo dela. Ekimenaren helburua izango da Jose Mari Basualdo aiararraren ibilbide profesionala omentzea.

Ibilbide oparoa

Basualdok 3 aldiz irabazi zuen Espainiako Ziklokros txapelketa (1972an, 1973an eta 1976an) eta Munduko Txapelketan 2. postua eskuratu zuen 1970ean eta 5. izan zen 1972an. Gainera, KAS talde profesionalako txirrindularia izan zen 1971etik 1976ra bitartean. Bere bizitzan 80 lasterketa inguru irabazi zituen.

Juan Antonio Aldamak adierazi du Basualdo lasterkari profesionala izan zen bitartean jende ugari jarraitzen zuela, askok eskualdekoak.

Herriko plaza



Ainara / Oier

Zorionak Oier eta Ainara!!!
Familia osoaren partez. Muxu
handi bat!

Senideak



Matute

Zorionak Matute zure nota
bikainengatik. 13 urteetan
hoberena egin!

Lagunak

**Iraia**

Zorionak printzesa! Asko maite zaitugu! Disfrutatu eguna eta muxu handi bat!

Familia

Idatzi zure mezua eta bidali
argazkia agurra@aiaraldea.eus
eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko
dugu. Martxoaren an argitaratuko da
hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak



	Arabako udalerria	▼	Gidaliburua	▼	Intsektu mota	▼	Katilu bakia
	Pluralean, sexu arra		Hondar erdi kiskalia		Siberiako ibai luzea		
	▶		▼		▼	▼	
	◆	▶					
IZENA							
Jada							
▶							
◆	▼	Zintzo	▼	Sodia	▶	Lantziegoko auzoa	▶
DEITURA		Likido bihurtuak		2 kontonante		Orotariko	
Era leunetan							
▶		▼		▼		Txakur	▶
						Bokala	
Kontsonante bikoitza	▶		Donostiako auzoa	▶		▼	
Zuhaitz mota			Isurkari zuria				
▶		▼	Gipuzkoako Adizkari Ofiziala	▶		Kontsonantea	▶
			... x 3 = Barrea			Jardun	
▶							Helduak euskalduntzeko erakundea
Iparr EH-ko diru	▶		▼		Nasa	▶	▼
Arabako kuadrila					Herri hizkeran, zer		
▶				Pasmo	▶	▼	
				Potasioa			
Egite oherrak	▶			▼			

❖ Bitxigile laudioarra

ERRAZA

	3			4		2	7	6
	7			2		9	5	
			5			8		3
		2			6	7		
7					4			5
3		8	7	5		4	6	2
					2		4	
				8	5	6	3	
		3	4	7			2	8

	7	6	2					
5	3			8				
8		4	6					7
6			5	3				9
		8						
		1	7	6		8		
				2		7		1
7			3	5			9	8
	6		8	7		2	4	5

ZAILA

			8		3			
6	3			7			8	
2	8	7						9
	4							
8							7	
	5	3	7		2			8
		4		5			6	2
5				4				
1				8	6	7	5	4

							6
		5		1	8		
	9			8		7	
			8	2			
		3		1		2	
4			5		3		
	6					9	
		8	3		1		
7							4

DENBORAPASEN SOLUZIOAK



Lan-eskaintzak

Instalazio eta mantenu
industrialeko teknikariak AUDIO
Galdategi arduraduna AUDIO
Pilates irakaslea AUDIO
Okindegiko langilea AMURRIO
Tornularia AUDIO
CNC Tornularia AMURRIO
Elektromekanikaria AUDIO
Ingeles irakaslea AUDIO
Administraria AMURRIO
Ileapaintzailea AMURRIO
Administrazioko langilea
hauteskundeetan AMURRIO
Aseguru komertziala AMURRIO

LAN-ESKAINTZA GEHIAGO
AIARALDEA.EUS ATARIAN

Guardiako farmaziak

Martxoak 20 RIVERA eta CACERES
(errefortsua PEREDA)
Martxoak 21 C. FUERTES eta YARZA
Martxoak 22 SOLAUN eta FERNANDEZ
(errefortsua YARZA)
Martxoak 23 MENOYO (errefortsua
SOLAUN) eta FERNANDEZ
Martxoak 24 MENOYO eta FERNANDEZ
(errefortsua YARZA)
Martxoak 25 EGUIA eta IBARROLA
(errefortsua PEREZ)
Martxoak 26 A. FUERTES eta PEREZ
Martxoak 27 AIS eta HERNANDEZ
Martxoak 28 RIVERA eta PEREDA
Martxoak 29 C. FUERTES eta CACERES
(errefortsua HERNANDEZ)
Martxoak 30 SOLAUN (errefortsua C.
FUERTES) eta CACERES
Martxoak 31 SOLAUN eta CACERES
(errefortsua HERNANDEZ)
Apirilak 1 MENOYO eta YARZA

Zozketa

Arabako Bertsolari txapelketako finala




ikusteko
2 sarrera


Saioa martxoaren 30ean izango da, 17:30ean, Gasteizko Printzipal Antzokian.

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus en
Zozketa data: martxoaren 29an, 12:00etan

Aiaraldea txiki





Emailzak




Segundotxo bat...

Bi sekuentzia hauen artean segundo bakar bat besterik ez da pasa, baina gauza mordoa gertatu da. Bila itzazu bi irudien artean dauden aldeak.



Ordena itzazu mendiok garaieraren arabera. Idatzi bakoitzari dagokion tokia, beheko borobiletan.

Handirik txikira



Kontra


Aiaraldetik mundura

Martha de Jong-Lantink

Jose Larrazabal

JAIOTERRIA
LAUDIO

BIZILEKUA
AUSTRALIA. DUELA 56 URTE
JOAN ZEN LAUDIOTIK BERTARA
BIZITZERA



“Euskal Herrira eginiko bisita baten ondorioz erabaki nuen Australiako Euskal Pilota Federazioa sortzea”

Laudioarra zara jaiotzez, baina urteak daramatzazu Australian bizitzen. Zer dela eta?

56 urte daramatzat Australian. Laudiotik atera nintzen bizitza berri bat hasteko helburuarekin, nire etorkizuna apurtu zuena ahazteko asmoarekin. Ilusioz betetako bizitza hasi nuen Laudion, baina oso azkar zapuztu zen. Horregatik erabaki nuen joatea.

Bizitza gehiena eman duzu Australian, beraz. Oso ezberdina da bertako bizitza hemen goarekin alderatuta?

Bizitza-maila bisitatu ditudan Europa edo Hego Amerikako beste herrialde batzuetakoa baino hobeagoa da. Gustatuko litzaidake herrialdeari buruzko informazio gehiago ematea,

baina ez ditut datu estatistikoak asko kontrolatzen. Hala ere, herrialdearen egoera hobezina da gauegun, segurtasun nazional zein pertsonalaren aldetik, batez ere.

Australiako Eskupilota Federazioaren sortzaileetako bat zara.

Bai. Beti izan dut gustuko eskupilota, baina ikasle garaian soilik praktikatu dut. Euskal Herrira egin nuen bisitetako batean elkarrizketa bat izan nuen Jose Mari Gorostiagarekin. Euskal Pilota Federazioko kidea zen bera garai hartan. Kirola probatzea erabaki nuen orduan.

Orduan sortu zenuten Australiako federazioa?

Bai. Federazioko presidentea

eta presidenteordea ezagutze-ko aukera ere izan nuen (Carlos Lasa eta Kepa Aroita jauregi, hurrenez hurren).

Eurak izan ziren konbentzitu nindutenak. Australian itzultzean talde bat osatu nuen egitasmoa aurkezteko. Modu horretan sortu zen Euskal Pilotaren Australiako Federazioa. Aho batez erabaki zuten ni presidente izatea.

Euskal Herriko federazioarekin bilera izan nuen, eta Euskal Pilotaren Munduko Kontseilua sortzea erabaki genuen. Aurrera atera zen egitasmoa eta gaur egun funtzionatzen jarraitzen du. Gure federazioa kontseilu horren kide fundatzailea da.

Zein da eskupilotaren egoera Australian?

Eskupilota nahiko gelda da-goela esan daiteke. Herrialde honetan oso zaila da kirol hau aurrera ateratzea, azpiegitura falta dugu. Hori da arazo handiena. Ezin dezakegu jende gaztea trebatu frontoirik ez badugu, frontoi batean ikusten duzulako benetan nolakoa den eskupilota.

Baina badituzue hainbat talde, ez?

Nik asko borrokatu dut hori egia bihurtu dadin. Neska talde bat izan dugu federazioan hainbat herrialdetan lehiatu dena: Argentinan, Estatu Batuetan, Venezuelan eta Txilen, besteak beste. Azken norgehiagoka Euskal Herrian egin genuen, Bilbo-ko Miribilla frontoiaren inaugurazioan.

AUSTRALIA



DESKRIBAPENA

Duela 46.000 urte heldu ziren lehen gizakiak Australiara. XVI. mendean iritsi ziren europarrak. Britainia Handiak presoentzako hainbat kolonia sortu zituen bertan. Isabel II. erreginak Australiako estatuburua izaten jarraitzen du.

AZALERA

7.741.220 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

25 milioi biztanle.

HIZKUNTZA

Ingelesa da hizkuntza ofiziala, hainbat tokiko hizkuntza mantentzen diren arren.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behe. Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Xabier Ugalde Gullas, Jabi Asurmendi Sainz, Unai Llano Anda, Eider Solatxi, Alberto Martinez Gutierrez-Barquin, Ali Orue Del Valle, Garrastatxu Landaluze Okeranza, Genma Corbella Eguiluz, Unai Vicente Basterra, Estibaliz Bideguren Otaola, Aitor Fernandez de Pinedo, Endika Arribas Gullas, Eunete Molinuevo Olabarria eta Koldo Rodriguez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

